

*** argazkilariari, garai bateko lagunmin:

Ez nizan orduan esan, baina orain esango dizut: nire literatura gogoko ez baduzu, ***, ez ezazu irakur. Zuk zeure iritziak izan ditzakezu, eta nik neureak. Nik ere pentsa dezaket zure argazkiak txapuza artistiko bat direla, edota zure “arrautza frijituak txistorrekin” plateri ateratzen dizkiezun argazkiak zure artearen espresio gorena direla. Gogoak ematen didana pentsa dezaket – borondate onez ala borondate txarrez, auskalo–. Hori bai, gure lagun “asko-hitzegin/gutxi-egin” *** zendua omentzeko elkartu ginen egunaz aprobetxatzea horrelakoak botatzeko sekula santan ez litzaidake burutik pasa ere egingo. Eta orain, batez ere, galdera bat egingo dizut: nor zara zu euskaraz, zehatz-mehatz...? Lepoa jokatu nuke erantzuna ezezaguna zaizula (badakizula uste izan arren). Egia esan, lerro hauek beherago erdaraz transkribatu badizkizut, izan da ziur egoteko ulertu egingo dituzula, akaso irakurriko bazenitu. Batzuetan, hizkuntza-maila txikiko euskaldun batzuei ahaztu egiten zaie umiltasun apur batez jokatzeko, beste euskaldun batzuek –jatorriz eta ibilbidez direnak direla– egindako ahalegina epaitzeko orduan.

*** argazkilariari, garai bateko lagunmin:

Ez nian orduan esan, baina orain esango diat: nire literatura gogoko ez baduk, ***, ez ezak irakur. Hik heure iritziak izan ditzakek, eta nik neureak. Nik ere pentsa zezakeat hire argazkiak txapuza artistiko bat direla, edota hire “arrautza frijituak txistorrekin” plateri ateratzen dizkiean argazkiak hire artearen espresio gorena direla. Gogoak ematen didana pentsa zezakeat –borondate onez ala borondate txarrez, auskalo–. Hori bai, gure lagun “asko-hitzegin/gutxi-egin” *** zendua omentzeko elkartu ginen egunaz aprobetxatzea horrelakoak botatzeko sekula santan ez litzaidakek burutik pasa ere egingo. Eta orain, batez ere, galdera bat egingo diat: nor haiz hi euskaraz, zehatz-mehatz...? Lepoa jokatu nitek erantzuna ezezaguna zaiala (badakiala uste izan arren). Egia esan, lerro hauek beherago erdaraz transkribatu badizkiat, izan duk ziur egoteko ulertu egingo dituala, akaso irakurriko bahitu. Batzuetan, hizkuntza-maila txikiko euskaldun batzuei ahaztu egiten zaiek umiltasun apur batez jokatzeko, beste euskaldun batzuek –jatorriz eta ibilbidez direnak direla– egindako ahalegina epaitzeko orduan.

Al fotógrafo ***, amistad de una época:

No te lo dije entonces, pero te lo digo ahora: si no te gusta mi literatura, ***, no la leas. Tú podrás tener tus opiniones, y yo las mías. Yo también puedo pensar que tus fotografías son una chapuza artística, o que tus fotos de huevos fritos con chistorra son la máxima expresión de tu sublime arte. Puedo pensar lo que

me dé la gana –sea con buena o con mala voluntad, a saber–, aunque lo último que se me pasaría por la cabeza es decírtelo el día en que precisamente hemos quedado para rendir homenaje al amigo común ya fallecido ***, que por cierto, en vida habló mucho, pero hizo poco. Y aún te haré otra pregunta, cuya respuesta dudo mucho que conozcas: ¿quién eres tú exactamente en euskara...? Apostaría cualquier cosa a que no lo sabes (aun cuando creas saberlo). De hecho, si estas líneas te las transcribo en castellano, es para estar seguro de que, si llegaras a leerlas, las fueses a entender. Porque, a veces, a ciertos vascoparlantes de bajo nivel lingüístico se les olvida actuar con un poco de humildad a la hora de juzgar el esfuerzo que otros vascoparlantes hayan podido realizar, sean cuales sean sus orígenes y trayectorias.